

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak LHko ikasleei eta tituludunei aholkularitza eskainiko die beraien enpresa propioa sortzeko

30.000 euroko programa LHko zentrozen eta CEINeko proiektu-sehaskaren bidez antolatuko da, enpresariekin elkarlanean

Viernes, 14 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak datorren ikasturtean detekzio-, orientazio- eta laguntza-zerbitzu bat abian jarriko du Lanbide Heziketako (LH) ikasleei eta berriki titulatu direnei beren enpresa propioa sortzen laguntzeko. IdeAccion izeneko programan 30.000 euro jarri dira, eta haren helburua talde horretan ekintzailtza sustatzea da negoziarako ekimen nahiz ideia goiztiarrak detektatzu.



Iribas eta Goicoechea kontseilariak, José Antonio Sarriarekin, IdeAcción programaren aurkezpenean.

Zerbitzua LHko zentrozen eta CEINeko (Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroa) proiektu-sehaskaren bidez antolatuko da, Nafarroako Enpresarien Konfederazioarekin elkarlanean.

Bilatzen den helburua egitura-mailan sendoak diren enpresa berriak sortzea da, fase goiztiar batean ekintzaileak nahiz negozio-ideiak detektatzu. Bilaketa LHko ikasle eta titulatu berrien artean egingo da (ikasketak azken hiru urteetan amaitu dituztenen artean bereziki), eta haiek beren enpresa propioen buru izateko prestakuntza jasoko dute. Ideia epe ertainean soldatuko enplegua sortzea da.

Ekimena ostiral honetan aurkeztu du lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak; Hezkuntza kontseilari José Iribasek; eta Nafarroako Enpresarien Konfederazioko lehendakari José Antonio Sarriak.

Programa Nafarroako Gobernuaren [Ekintzailtza Plan](#)aren barnean sartzen da. Plan horrek ekintzailtza ikuspegi integral batetik bultzatzen du, hezkuntzaren bidez ekintzailtza kultura sustatuz; ekintzaileak aholkularitza pertsonalizatuaren bidez lagunduz; laguntzetan eta pizgarri fiskaletan oinarritutako euskarri ekonomikoarekin; eta enpresa-sektoreak parte hartzea duen ekintzaileentzat laguntza-sare bat sortuz.

Negozio-ideien detekzio goiztiarra

Ekintzaileen detekzio goiztiarrerako, negozioa bultzatzeko bulegoak sortuko dira LHko zentro publikoetan, eta haietan interesa duten ikasle nahiz tituludunek beren enpresako ekimenak zein ideiak azaldu ahalko dituzte. Lehen balorazio baten ondoren, negozioarako aukerak dituzten proiektuak enpresaren sorreran eta orientazioan aritzen diren erakundeetara bideratuko dira.

Erakundeetako bat CEIN enpresa publikoa izango da, eta hark proiektu-sehaska batean lanerako tokia eskainiko die eta aholkularitza pertsonalizatua enpresa pilotu bat garatzen laguntzeko. Lehen fase batean, hamabi ekintzaile hartuko ditu.

Negozioa sustatzeko bulegoetan diziplina anitzeko profesionalen taldeek emango dute arreta, eta profesional horiek irakasleak, CEINeko teknikariak eta enpresariak izango dira, zentro bakoitzeko prestakuntza eta lan-orientazio departamentuaren koordinaziopean.

Programa horrekin irtenbide praktikoa eman nahi zaie, beren azken prestakuntza-zikloan zehar "Enpresa eta ekimen ekintzailea"-moduluaren barnean lanean diharduten LHko ikasleen negozioarako ekimen nahiz ideiei. Ikasleen artean sormena eta ekintzaitza sustatzea bilatzen duen ikasgaiak negozio-ideia bat garatzea eta aurkeztea du xede.